



## IGARTUBEITI FAMILI TXARTELA

### **IGARTUBEITIKO FAMILIEK ABANTAILA DUTE!**

**Famili Txartela** Baserri Museoa eta herritarren artean, bereziki familien artean, hurbiltasun harremana sortzea helburu duen tresna da. **Igartubeiti kultur espazio aktibo eta irisgarri** bihurtzen duten abantaila sorta bat eskainiz.

Ondarearekiko gertutasuna lantzeko ikuspegi eta lengoia ezberdinak erabiltzen dira Baserriko Hezkuntza Egitasmo honetan, eta esparru honen barruan kokatzen da Familia Txartela. Ikuspegi eta lengoia desberdin hauek ingurune, natura, kultura, gizartea, etab.ekin harremanetan jartzeko modu berriak eskaintzen dituzte.

### ZEIN ABANTAIETAZ GOZA DEZAKEZU?

Igartubeiti Famili Txartelarekin abantail askotaz goza dezakezu eta kolektiboa izatea nahi dugun egitasmo bateko partaide izan zaitezke. Zure ideiak eta iradokizunak asmatzen laguntzen gaituzte!

- Jardueretan parte hartzeko aurre erreserba eta lehentasunezkoa
- Familientzako bereziki sortutako jardueraz gozatzeko aukera
- Baserri-Museoko dendako produktuetan % 7ko deskontua
- Zatoz Museora nahi duzun oro DOAN!
- Gonbidatu zure lagun bat Igartubeitiko tailerretan parte hartzera! 2x1 Sarrera
- Ospatu museoan zure urtebetze festa. Tailerrak nahieran prezio bereziekin
- Promozio eta lehiaketa berezietan parte hartzea
- Inguruko ostatuetan prezio bereziak
- Igartubeiti eta Zumalakarregi Museoak bisita gidatuarekin ezagutzeko bonu bateratu batez gozatu

## NOLA LORTU DEZAKET TXARTELA?

Modu ezberdinez lor dezakezu:

- Formularioa On line bidali eta zurekin harremanetan ipiniko gara txartela jasotzera etortzeko Igartubeiti Baserri Museoan.
- Osatu formularioa Baserrian eta bertan eskura eman.

Bi kasuetan, txartela museoan jaso ahal izango duzu.

## TXARTELA FAMILIKO BESTE KIDEREN BATEK, LAGUNEN BATEK ERABIL DEZAKE?

Txartela ez da transferigarria. Bi jabe izan ditzazke, aita, ama edo/eta tutorea eta gehitu nahi dituzun dagozkizun seme alaba guztiak.

## ZE KOSTUA DAUKA?

Famili Txartelak famili bakoitzeko 5 eurotako kostea du eta urtero berritzen da. Ekarpen sinboliko honekin egitasmo honi eta bere jarduera guztiei babesa eskaintzen diezu.

## ZE IRAUPENA DU, IRAUNGITZE DATARIK BA AL DU?

Txartelak urtebeteko iraunaldia du. Ondoren Igartubeitiko famili lagun arteko kide izaten jarraitu nahi baduzu zure konpromisoa berritu behar duzu, guk zurekin horrela egingo dugu, urtez urte hobetuz!

## ZALANTZARIK BA AL DUZU?

Edozein zalantzatarako ipini gurekin harremanetan, deitu 943 72 29 78 telefonora edo bidali e-maila [igartubeiti@gipuzkoa.net](mailto:igartubeiti@gipuzkoa.net)-era. Pertsonalki ere oso gustura hartuko zaitugu.